



## EGKren diseinatzaileen lan poltsan sartzeko baldintzak

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak diseinatzaile gazteekin harremana izan nahi du 2016an sortuko diren lanak antolatzeko. La poltsa bat osatuko da izena eman eta aukeratzen diren diseinatzaileekin eta urtean zehar, beharren arabera, lanak banatuko dira ekintza bakoitzeko aurrekontu zehatzak adostuz.

### EGIN BEHARREKO LANAK

Hauek dira 2016an zehar EGK-k beharko dituen lanak diseinuaren arloan (portfolian egindako antzeko lanak aurkeztu behar dira):

- Sortzen ari den webgune berriaren elementu grafikoak.
- Logotipoa eta irudi korporatiboaren erabileraren garapena.
- EGKren 30. urteurrenaren euskarri grafikoak.
- EGKren ekintzen zabalpenerako euskarriak: kartelak, eskuorriak, liburuxkak...

### BALORAZIOA

Aurkeztzen diren proposamenen artean, **aurretik egindako antzeko lanen portfolioa baloratuko da. Parte hartzen duten pertsonak edo enpresek, derrigorrez fakturatzeko gaitasuna izan behar dute.**

Gainera baloratuko da:

- 18-30 urte bitarteko gaztea izatea edo pertsona gazteez osaturiko enpresa izatea.
- Bai gaztelaniaz bai euskaraz lan egiteko gaitasuna. Maila altua.
- EGKren kidea den entitate batean egotea edo plataformarekin loturaren bat izatea.

### EPEAK

Interesa duten pertsonak edo enpresek bere **kurrikuluma eta portfolioa** aurkeztu behar dute **2016ko urtarrilaren 29ko eguerdiko 12.00ak baino lehen "diseinatzaile gazteak"** gaiarekin [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) helbidera bidaliz. Proiektuak aztertuko dira eta pertsona guztiei jakinaraziko zaie aukeratuak izan diren ala ez.

Informazio gehiago jakiteko, 943 429767 telefonora deitu edo [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) helbidera idatzi (Iñaki Goikoetxea, EGKren komunikazio teknikaria).